

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Aldatzea 2019/2020ko dirulaguntzen plan estrategikoa

Udalbatzak, 2020ko martxoaren 11ko ohiko osoko bilkuran eta 2020ko maiatzaren 13ko ohiko osoko bilkuran, erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa. Donemiliagako Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa (2019-2020) aldatzea, ondoren adierazten den eran aldatu ere:

1. Kultura, kirol eta gizarte gaiak planifikatzeko zerbitzua:

Lankidetzaren xedea areagotzea 2020rako, alegia:

ZK.	DIRUZ LAGUNDUKO DEN XEDEAREN DESKRIBAPENA	ONURADUNA	EMATEKO MODUA	HELBURUA	AURREKONTUA 2019	APLIK.
1.20	Kirol elkarteei, federazioei eta pertsona fisikoei dirulaguntzak ematea kirol jarduerak antolatzeko	Arabako Herri Kirolen Federazioa	Dirulaguntzen zuzeneko emakida Hitzarmena	Herriarteko kirol jardueretan laguntzea	1.000,00 €	341482002

2. Ekonomia, gizarte, emakumea, berdintasuna, haurtzarua eta adinekoak planifikatzeko zerbitzua:

Lankidetzaren xedea areagotzea 2020rako, alegia:

ZK.	DIRUZ LAGUNDUKO DEN GAIAREN DESKRIBAPENA	ONURADUNA	EMATEKO MODUA	HELBURUA	AURREKONTUA 2020	APLIK.
2.31	Erakundeei, federazioei eta pertsona fisikoei dirulaguntzak ematea landa garapen jarduerak antolatzeko	AHT EZ LAUTADA Plataforma	Dirulaguntzen zuzeneko emakida	Abiadura handiko trenarekin zerikusia duten landa garapenerako ekintzetan eta jardueretan laguntzea	1.000,00 €	414481002

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn, udal web orrian eta iragarki taulan argitaratzea.

Erdoña, 2020ko irailaren 9a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO